



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025ko urtarrilaren 14a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

### Annie Ernaux

(Lillebonne, Frantzia, 1940)


Annie Thérèse Blanche Duchesne 1940ko irailean Lillebonnen jaio zen eta frantses literaturako irakaslea eta idazlea da. Literaturako Nobel Saria 2022an eman zioten, "*memoria pertsonalaren sustraiak, distantziak eta muga kolektiboak aurkitzeko erabili zuen ausardia eta zorrotzasun klinikoagatik*".

Giro xumean jaioa, haurtzaroa eta nerabezaroa Yvetoten eman zituen, Normandia Garaian, Ruango Unibertsitatean ikasi aurretik eta ondoren Bordelekoan. 1971n, irakasle tituludun bihurtu zen, eta, ondoren, literatura modernoko irakasle elkartuko. 2000. urtean erretiroa hartu zuen arte irakatsi zuen, bere jardueraren literarioa eskakizun ekonomikoetatik babesteko.

Annie Ernauxek 1974an egin zuen debuta literaturan, *Les Armoires vides* eleberri autobiografikoarekin. 1984an Renaudot saria eskuratu zuen *La Place* lanagatik, hau ere autobiografikoa.

Bere literatur lana, funtsean autobiografikoa, soziologiarekin lotura estua duena, berrogeita hamar bat hizkuntzatarara itzulita dago.

### Emakume bat



Gorputza eta memoria apurka-apurka hustu dizkion gaixotasun luze baten ostean, Annie Ernauxen ama zahar-etxe batean hil da. Herio hurrenean, idazleak amaren bizitzaren ispilu hautsiaren puskak batzen eta osatzen saiatuko da, eta ariketa literario horrek amarekiko anibalentzia sentimenduak sortuko dizkio: maitasuna, gorrotoa, errukia, tristezia, ulertu ezina... Hala, bada, alabaren kontakizun gordinean, bi emakumeen historia pertsonalek talka egiten dute eta, aldi berean, gainjartzen dira.

## Annie Ernauxen argitalpenak euskaraz

**Emakume izoztua** (1981) **N ERN**

**Lekua** (1983) **N ERN**

**Emakume bat** (1988) **N ERN**

**Pasio hutsa** (1992) **N ERN**

**Gertakizuna** (2000) **N ERN**

**Idazketa labana bat da** (2003) **N ERN**

**Begira zenbat argi, maitea** (2014) **M ERN**

**Neska baten memoria** (2016) **N ERN**

## Kritikak esandakoak

“... Itziar de Blas Fernandez de Gamarrak horren duin eta fin euskaratutako liburuan, lehen pertsonako narratzailea mintzo zaigu, eta, bere amaren heriotza abiapuntutzat hartuta, puskaz puska haren bizitza berreraikitzen du. Bide hori, ordea, ez da perfekzioaren lekuko; Ernauxek ez du ama baten erretratu aingerutarra islatzen. Bizitza errealean bezalakoa da obran ere ama-alaben arteko harremana, batzuetan gatazkatsua, besteetan sentitua, eta anibalentzia horrek are gizatiarragoa egiten du subjektu literarioa. Nabaritzen da Ernauxek liburu honetan moralari eta etikari baino gehiago, egitari egin diola dei, amaren egitari eta bizitzari. Izan ere, amarekin egoteko leku bat da funtsean liburua, nahiz eta espazio hori batzuetan mingotsa izan, idazlearen beraren hitzetan: “Ez dago jakiterik zer idazten dudan amari buruz. Baina ez dut hari buruz idazten; hori baino gehiago, iruditzen zait harekin nagoela garai batean, leku batzuetan, non bera bizirik dagoen”.

Badakit fikziozko lanetan ez dela zuzena idazlea eta “ni” dioen subjektua parekatzea eta, are, bata bestearekin nahastea. Hizpide dugun obra nobelatza (ere) hartu dutela jakitun izan arren, bi-biak elkarrekin lotzeko ausardia izan dut kasu honetan. *Emakume bat* irakurtzen duen edonor konturatuko da ez dela sailkatzeko obra erraza, ez baita kaxoi bakar batean kabitzen: ez da fikziozko lan bat huts-hutsean, ezta biografia guztiz konbentzional bat ere. Datu errealak daude, narratzailearen jaioterria adibidez; haatik, ez ditu egiak osorik kontatzen. Material historiko nahiz soziologikoa ere agertzen da, gainera, amaren bizitza deskribatzearekin batera, ezinbestean, garai hartako gizartearen soslaia eraikitzen den heinean.

Autofikzioa idazten duen artistatzat hartu izan dute Ernaux, fikzioz betetako testu autobiografikoak (edo alderantziz) konstante bat izan direlako bere ibilbide eta unibertso literarioan. Baina, esango nuke bere literaturaren garrantzia ez dagokiola autofikzioa egiteari (bakarrik), ezpada hautu estetiko horren helburuari. Izan ere, intimoa eta pribatua baliatuz, kolektiboari dei egiten dio idazleak bere testuetan, norberaren memoriatik besteen memoriak eraikitzen ditu eta intimitatearen dimentsio politikoa aldarrikatzen. Nire ustez, *Emakume bat* obraren erakargarritasuna ere (literarioki hitz eginda) hautu eta perspektiba horretan datza.”

Nagore Fernandez / Berria, 2023-03-19

## Erabilitako iturriak

Wikipedia

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Annie\\_Ernaux](https://eu.wikipedia.org/wiki/Annie_Ernaux)

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8751>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5480>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5481>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5473>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5440>

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/eu/liburuak/emakume-bat>

Euskarari ekarriak

<https://ekarriak.armiarma.eus/?i=278>